

2018-09-25eko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko irailaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian , Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga , Olaia Nieto Legarra eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2018-07-24).

Aurkeztu da 2018ko uztailak 24ko aktaren zirriborroa.
Bestalde akta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/125 DEKRETUTIK 2018/151 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/125 dekretutik 2018/151 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2018KO ORDAINSARIEN EGOERARI DAGOKIONEZ 2018KO IRAILAREN 9KO ALKATEAREN DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

Jakinarazten da Alkatearen 2018ko irailaren 12ko 147/18 Dekretua:

Iruran, bi mila eta hamazortziko irailaren hamabian, eguerdiko ordu batean, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin, korporazioko idazkariak lagunduta, Ana Jesús Leunda Gurruchagak bere gain hartu du alkate lehendakaritza eta zera dio:

2018ko ordainsarien igoerari dagokionez, 2018-07-04an Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean; arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta gure administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Hain zuzen, Lege horren 18.Bi artikulua hau xedatu du:

“18.Bi artikulua.

2018. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1,5 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinatasunari begira.

En Irura a doce de septiembre de dos mil diez y ocho, en la Casa Consistorial, siendo las trece horas, se constituye en su despacho oficial, la Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento de Irura, D^a Ana Jesús Leunda Gurruchaga y asistida por mí, el Secretario de esta Corporación D. Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin y dice:

En relación con los incrementos retributivos 2018, el 4/07/2018 se publicó en el Boletín Oficial del Estado la Ley 6/2018 de 3 de julio de Presupuestos Generales del Estado de 2018, norma que posibilita la adopción de medidas para el incremento retributivo de nuestros empleados públicos.

En concreto, el art. 18.Dos de la referida Ley dispone lo siguiente:

"Artículo 18. Dos.

En el año 2018, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2017, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2017an %3,1era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste igoera bat egongo da ordainsarian, hain zuzen, 0,25ekoa.

Ildo horretan Ministroen Kontseiluak 2018ko uztailaren 13an hartutako erabakiaren onartu du aipatu den igoera.

Gainera, soldata-masaren %0,2ko igoera gehigarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak abiarazteko, funtzio berdintsuak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak berraztertze, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planei ekarpena egiteko. Administrazioetan eta artikuluan honetan definitutakoaren arabera 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabita duten sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori %0,3koa izan daiteke."

Ildo horretan, Udal honek onartu du 2017ko Aurrekontuaren likidazioa superabitarekin eta ondorioz, onartu daiteke %0,3 igoera.

Baina kopuru hori gastatzen da pentsio-planei ekarpena egiteko (Elkarkidetza): 2018 (22.000€). 2017ko soldata-masa (650.000€). Portzentaia : 0,3.

Idazkari-Kontuhartzailaren txostena ikusita.

Hori horrela, indarrean dagoen legediak jasotako eskumenak betez,

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2017 alcanzara o superase el 3,1 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2018, otro 0,25 por ciento de incremento salarial.

En este sentido y por acuerdo del Consejo de Ministros de fecha 13 de julio de 2018, se ha autorizado el citado incremento.

Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0,2 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2017, este incremento adicional podrá alcanzar el 0,3 por ciento".

En este sentido este Ayuntamiento ha liquidado el presupuesto de 2017 con superávit presupuestario, por lo tanto es aplicable el aumento del 0,3 %.

Ahora bien dicho aumento se dedica a la aportación a planes de pensiones (Elkarkidetza):

2018 (22.000€). Masa Salarial 2017 (650.000€). Porcentaje: 0,03%.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con las competencias señaladas en la legislación vigente,

ERABAKI DUT :

1º.- Udal langileen ordainsarien igoera orokorra hau onartzea:

-2018ko urtarrilaren 1etik %1,5.

-2018ko uztailaren 1etik %0,25.

2º.- Adostu izan daitezke Udal langileen lan-baldintzen hobekuntzei utzi gabe.

3º.-Udalbazari jakinaraztea, egingo duen lehenengo bileran, ebazpen hau berresteko, ahal bada.

RESUELVO

1º.-Aprobar un aumento general de las retribuciones del personal municipal del 1,5% desde el 1 de enero de 2018 y del 0,25% desde el 1 de julio de 2018.

2º.- Todo ello sin perjuicio de otras mejoras en las condiciones de trabajo del personal municipal que puedan pactarse.

3º.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación en la próxima sesión que celebre para su ratificación si procediera.

Eta udalbatza , aho batez, berrestu du.

LAUGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei

buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Eta hori ikusita , udalbatzak , aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.-Hasierako onarpena ematea Etxez Etxeko Zerbitzuaren Udal Araudiari, lehen aipatu den proposamenaren arabera.

2º.-Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bitartez.

Erreklamazio edo iradokizunak ez badago, behin betiko onartuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da, eta Araudiaren testu osoa argitaratuko da.

ACUERDO

1º.-Aprobar con carácter inicial el Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio, según dicha propuesta.

2º.-Someter el expediente a información pública por el periodo de 30 días hábiles, para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

En el caso de que no presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo se entenderá aprobado definitiva y se publicará el texto completo del mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En este sentido se publicará el texto completo del Reglamento.

BOSGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN UDAL PREZIO PUBLIKOA ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Etxez Etxeko Zerbitzua finantzatzeko onartzea nahi da prezio publikoa zerbitzuaren erabiltzaileek ordaintzeko.

Prezio publikoa ez da zerbitzu kostuaren adinakoa izango. Baina bidezko gizarte arazoak daude mugatik beherako prezio publikoak jarri ahal izateko udalak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren ekarpenak, halakorik badago behintzat.

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Araua Erregulatuzailearen 50 . artikuluekin bat.

Hori ikusita , udalbatzak , aho batez, hau onartu du

ERABAKIA

1º.- Etxez Etxeko Zerbitzuaren Prezio Publikoaren Araudia onartzea.

2º.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testua osorik argitaratzea.

SEIGARREN GAIA

“HAURRESKOLA EGOKITZEA ETA ERAIKINAREN ERREFORMA SAN MIGEL PLAZA, 6” OBRAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Jakinarazten da “ Haurreskola Egokitzea eta Eraikinaren Erreforma San Migel Plaza,6an “ obraren likidazioa: 286.407,37 eurokoa.

Udal zerbitzu teknikoen txostena ikusita.

Udalbatzak , aho batez, onartu du.

ZAZPIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago ezer .

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Alkateak adierazi du azken udalbatzan galdetu zela ikasle batzuk EGako azterketa egin dutela eta ea eskatu duten diru laguntzarik azterketa prestatzeko gastuak laguntzeko. Euskara teknikariaren txostenaren arabera hiru ikasle dira eta eskatu dute diru laguntzarik eta euskara ikasteko diru laguntzaren dekretuan sartu dira.
- b) Mikel Gotzon Iturbek (EH Bildu) azalpenak eskatzen ditu 143/18 Alkate Dekretuari buruz: pertsona batek salaketa jarri du.
Alkateak erantzun du salaketa ez dela kalte ordainaren eskaera , istripua izan zela eta batzordean emango direla azalpenak.
Mikel Gotzon Iturbek (EH Bildu) erantzun du Dekretua erabakita dagoela, eta orain ea zer erabakiko den batzordean. Beti gauza bera egiten dutela, komentatu gabe erabaki hartzea eta gero zer.
Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du gardentasunaren falta erakutsi dela.
Alkateak erantzun du batzordean azalpen guztiak emango direla.
Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) erantzun du hori lehen egin behar zela ez ondoren eta zergatik ez zen eman aurretik azalpenik.
Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) beraien hipotesia adierazi du: isiltasuna oso esanguratsua dela, zinegotzi bat dagoela tartean, eta gaizki egin zuela zinegotziak, ez baitzuen onartua. Orain onartu duela zati handiena

ordaintzearena, baina ez dakigu zergatik udalak ordaintzen duen zati bat. Hori lagun bati ematea ia malbertsatzioa dela.

Alkateak erantzun du juridiko aldetik idazkariak erantzun behar duela.

Idazkariak adierazi du pertsonen diskrezioaren eskubidea daukatela eta ez duela uste udalbatza irekia leku aproposa denik azalpenak emateko eta komenigarriena batzordean azalpenak ematea dela.

- c) Alkateak Tolosako Arraun Kluba zoriontzen du denboraldi osoan egin duen lanagatik, bailarako udal guztiek apustua egin zutelako emakumeen alde eta hemen zer ondorio onak, "zorionak neskak denon izenean lan bikaina egin duzuelako".
- d) Alkateak adierazi du Irurako festetan daudela eta San Migel egunean eta falta diren egunetan ondo pasatzeko.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA